

ERASMUS ETA GAINERAKO MUGIKORTASUN PROGRAMEI BURUZKO ARAUDIA

(Fakultateko Batzarrean onartzeko, 2015ko maiatzaren 25ean)

Araudi honek osatu egiten du Erasmus+ eta SICUE ikasle-mugikortasunari buruzko programen inguruan UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzak argitaratutakoa.

Araudiaren azpian dagoen filosofia da kanpoan ikasteko bidea erraztea; horretarako, Erasmus+/SICUE programaren hasierako izpirituari heldu zaio berriro eta, hala, bidegabekeriak saihestu egin dira. Asmoa da, batez ere, mugikortasun-programan parte hartzen duen ikasleak derrigorrezkoa duena gure zentroan burutzea (zenbait kasutan, karrera amaierako proiektua kenduta) eta kanpoko egonaldia hautazkoetarako egitea. Kanpoan egindako kredituak ikaslearen espedienteetan sartuko dira hautazko kredituak bezala.

Informatika Ingeniaritzako Graduoko ikasketa planean esaten denez, balio bereko kredituak emango dira unibertsitateak sinatutako mugikortasun-hitzarmenen arabera burututako ikasketengatik (Erasmus hitzarmena horietako bat da). Kasu honetan, gehienez hautazko 48 kreditu eta gradu amaierako proiektuaren 12 kreditu eman ahal izango dira.

Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak kanpoan egin dituen kredituak eta ikasgaiak eta haietan lortutako emaitzak atal berezi batean agertuko dira. Bestalde, onestutako kreditu kopurua azalduko da.

Egonaldia lauhileko batekoa edo bikoia izango da (kanpoko unibertsitate batzuetan seihilekoa da) ikaslea hartzen duen unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenaren arabera.

1.- Ikasleek bete beharreko baldintzak, aukeratuak izateko

Graduko ikasleek Erasmus+/Sicueko mugikortasun bat eskatu ahal izateko lehenengo eta bigarren mailako irakasgaien artean 114 kreditu gaindituta eduki beharko dituzte eskaera egitean.

2.- Ikasleak aukeratzea

Eskaeren lehentasun-ordena zehazteko, ondorengo formula hau erabiliko da. Formularen arabera, lehentasuna izango dute, mugikortasun-programako egonaldia dela bide, karrera kanpoan amaitzeko prest dauden ikasleek. Formula honen arabera, halaber, espediente onenenak sarituko dira. Hona hemen formula:

$$\frac{\sum_{i \in \text{GainditutakoIrakasgaiak}} \text{nota}_{\text{irakasgaia}_i} * \text{kredituak}_{\text{irakasgaia}_i}}{\sum_{i \in \text{GainditutakoIrakasgaiak}} \text{kredituak}_{\text{irakasgaia}_i}} \cdot \frac{1 + (\text{hasierako}_{\text{urtea}} - \text{sarrera}_{\text{urtea}})}{4}$$

formulan:

hasierako_urtea = kanpoan ikasturtea hasten den urtea; ikasturte horretarako eskatu da Mugikortasuneko plaza. Adib.: 2014-2015 ikasturtea -> 2014

sarrera_urtea = Fakultatean sartu zeneko urtea.

3.- Onespen akademikoaren aurreko konpromisoa

Behin mugikortasuneko ikasleak onartzen dituztenean, ikasleek zehaztuko dute joan behar duten kanpoko zentroko zein irakasgai ikasi nahi dituzten, itzultzean baliozkotu edo onestu diezazkieten. Egindako aukeraketa onespen akademikoaren aurreko konpromisoan jasoko da; hala badagokio, aukeratutako irakasgaiak Fakultateko ikasketa planeko irakasgaiekin bat datozela ere adieraziko da, aipatutako konpromisoan. Konpromiso horren inguruan, ezinbestekoa izango da betetzean, mugikortasuneko programen koordinatzaileak gainbegiratzea.

4.- Mugikortasunean egindako irakasgaiak eta horien bateraezintasunak

Ikasleek bere onespén akademikoaren aurreko konpromisoan kanpoko unibertsitateko irakasgaiak aukeratzen dituzte baliozkotu diezazkieten. Irakasgai horiei mugikortasunean egindako irakasgaiak esaten zaie.

Mugikortasunean egindako irakasgaiak hautazko edo gradu amaierako proiektuko derrigorrezko kredituen balio bera izan dezakete (kasu honetan GAP-ak espezialitateko koordinatzailearen aurre-onespena eduki beharko du). Salbuespen gisa espezialitateko zenbait irakasgai baliozkotu ahal izango dira hitzarmenean hala jasotzen denean eta beti 18 kredituko mugarekin.

Dena den mugikortasunean egindako irakasgaiak muga hau izango dute: kredituen kopurua ez da 60 baino handiagoa izango, urtean kanpoan egiten den egonaldi bakoitzeko. Eta 30 kreditu egonaldia lauhileko bakarrekoa bada.

5.- Gradu amaierako proiektua baliozkotzea

Ikasleek aukeratzen badute gradu amaierako proiektua mugikortasunean egindako irakasgai bezala, aukeratutako espezialitatearen barruan proiektu bat (edo proiektu baten zatia) kanpoko zentroan dagoen bitartean egin ahal izango dute.

Ikasleek euren proiektua zuzenean baliozkotu ahal izango dute itzultzean, kanpoan lortutako notarekin berarekin, beste epaimahai batengana joan gabe, baldin eta ikasleek gure Ikasketa Planak eskatutako kredituak, gutxienez, egin eta proiektua epaimahai ebaluatzaile batek gure Fakultatean ebaluatzen den antzera ebaluatzen badu,

6.- Matrikula

Mugikortasuneko ikasleek Fakultatean egingo dute matrikula, kanpoko zentroan igaro behar duten ikasturteari dagokiona.

- Automatrikulan tokatzen zaien egunean egin behar dute matrikula.
- Mugikortasunean egindako irakasgaietan ez ezik, beste batzuetan ere matrikula daitezke, baldin eta beren asmoa beste irakasgai horiek Fakultatean ikastea bada (irakasgai arruntak).
- Nola mugikortasunean egindako irakasgaietan hala irakasgai arruntetan matrikulatzeko, gainerako ikasleei eskatzen zaizkien baldintza berberak beteko dituzte.

- Mugikortasunean egindako irakasgaiei dagokienean, onespén akademikoaren aurreko konpromisoa aurkeztuko dute.
- Ez da onartuko mugikortasunean egindako irakasgai bezala, agiri horretan agertzen ez den irakasgairik.
- Ezin izango dira mugikortasunean egin Fakultatean gainditu ez diren ikasgaiak.
- Ez da onartuko, era berean, matrikulatzean 4. puntuko mugak errespetatzen ez duen irakasgairik (esaterako, irakasgaien aurrebaldintzaren bat ez onartzea). Eta
- Ikasleek euren erabakiz uko egin diezaioke beren onspén akademikoaren aurreko konpromisoan agertzen den irakasgairien batean matrikulatzeari.

Matrikula egiterakoan, automatrikula egitea tokatzen den egunean, Baliozkotzearen Aurreko Onspena aurkeztuko da, behar bezala beteta eta mugikortasun-programen koordinatzaileak sinatuta.

7.- Irakasgai arruntak ebaluatzea

Irakasgai arruntak eta graduen espezialitateko irakasgaiak mugikortasun-programatik kanpo ebaluatuko dira. Beraz, ikasleak, irakasgai horiek ebaluatzeko, ohiko metodoetara mugatuko dira (azterketa-eguna...); mugikortasun-programen koordinatzaileak, gainera, ez du inolako eskumenik izango irakasgai arruntan gainean, eta ez du inoiz proposatzerik izango azterketa gehigarriak egitea edo horien egunak aldatzea, mugikortasuneko ikasleentzat.

8.- Kanpoan ikasi beharreko irakasgaiak aldatzea

Mugikortasun-programetan parte hartzen duten ikasleek aukera izango dute Onspén Akademikoaren Aurreko Konpromisoan hasieran ipinitakoa aldatzeko. Aldaketak kanpoan ikasi beharreko irakasgaien irakaskuntzaren inguruko ustekabekoengatik izan behar dute (esaterako, ordutegiak bateraezinak direlako edo irakasgaiak ireki ez direlako).

- Mugikortasun-programen koordinatzaileak justifikatutako aldaketek izan ditzaketen gorabeheren berri izango du, momentu oro.

- Gure Ikasketa Planean baliokideak diren irakasgaien bidez baliozkotuko dituzten irakasgaietan egin beharreko aldaketak batera eta agiri batean eskatu beharko dituzte ikasleek; agiri hori, gainera, ikasleek beraiek aurkeztu beharko dute. Entrega egingo da, ikasleek erabakitzen dutenean zein irakasgai ikasiko dituzten kanpoan (gutxi gorabehera, hilabeteko egonaldiaren ondoren). Mugikortasun-programen koordinatzaileak aipatutako agiriari helduko dio; agiriak Baliozkotzearen Aurreko Konpromisoa ordezkatu du, entregatzen bada.